

20. Laboratorioa

Textuak Morse kodeetara itzultzen dituen programa bukatuko dugu. Horretarako, **20. laboratorioa** karpetatik *Morse.txt*, *Morse.frm* eta *Morse.vbp* fitxategiak jaitsi behar dira. Hor programaren zati bat eginda ematen zaizue. Ondoko interfazea erabiliko da:

Egin beharrekoa:

1. Funtzio bat idatzi behar da letra bat emanda, dagokion morse kodea itzultzen duena. "MORSEra itzuli" eta "Seinalea jo" botoietan erabiliko da eta bere helburua lana erraztea da.
2. "**MORSEra itzuli**" botoia: Bigarren textu-kutxan idatzitakoa morsera pasa eta irudi-kutxan idatzi.
3. "**Seinalea jo**" botoia: Bigarren textu-kutxan idatzitakoa morsera pasako da. Bi seinale mota ditugu: motzak ("." ikurra, 300 milisegundukoak) eta luzeak ("-" ikurra, 600 milisegundukoak) . Bi seinaleren artean 400 milisegunduko ixilune bat egingo da eta morse kode oso bat jo eta gero 800 milisegunduko **ixilune** bat egingo da letrak bereiztu ahal izateko. Seinaleak jotzeko **Beep(frekuentzia,luzera)** eta **Sleep(luzera)** funtzioak erabiliko dira. Lehengoak seinale bat joko du guk adierazitako frekuentziako eta milisegundutakoa. Bigarrenak ordea programa geldituko du guk adierazitako milisegunduetaz, eta ixiluneak egiteko erabiliko da.
4. **Errore kontrola (I)**. Fitxategia esistitzen dela konprobatu, bestela idatzi errore mezu bat. Honetarako, **Dir(fitxategia)** funtzioa erabiliko da: fitxategi baten izena emanda, esistitzen ez bada, "" itzuliko digu, bestela fitxategiaren izena itzuliko digu.
5. **Errore kontrola (II)**. Morsera itzultzerakoan, letra taulan ez badago, errore mezu bat ateratzen letra ez dagoen esanez.
6. **Botoien aktibazioa**. Hasieran, lehenengo textu-kutxa eta botoia besterik ez dira aktibatuta egongo. Fitxategia ondo irakurritakoan, desaktibatuta zeudenak aktibatu eta aktibatuta zeudenak desaktibatu egin behar dira. Horretarako *Enabled* propietatea erabiliko da.